

## AUTOEBALUAZIOA (7. GAIA)

1. Grashof zenbakiak jariakinen goranzko indarren eta likatasunaren arteko erlazioa adierazten du.

- A Egia
- B Gezurra

2. Prandtl zenbakiak balio altuagoak hartzen ditu likidoen kasuan gasetan baino.

- A Egia
- B Gezurra

3. Konbekzio koefizientea gasetan likidoetan baino altuagoa izan ohi da.

- A Egia
- B Gezurra

4. Fourier-en legea kondukzio bidezko bero transmisioa azaltzeko oinarrizko ekuazioa da.

- A Egia
- B Gezurra

5. Bero-emari berdinerako, tenperatura profilaren malda txikiagoa da material isolatzaileen kasuan, material ez isolatzaileekin konparatuta.

- A Egia
- B Gezurra

6. Egoera egonkorrean, tenperatura alda daiteke posizioaren arabera.

- A Egia
- B Gezurra

7. Konbekzio koefizientea ( $h$ ) jariakinaren propietate fisikoen, erregimen motaren eta sistemaren geometriaren arabera da.

- A Egia
- B Gezurra

8. Tenperatura profilaren bilakaera xafla lau batean linealki aldatuz doa lodierarekiko baldin eta  $q$  eta  $k$  konstanteak badira.

- A Egia
- B Gezurra

9. Tenperatura profilaren bilakaera logaritmikoa da hodi zilindriko baten pareten artean, baldin eta  $q$  eta  $k$  konstanteak badira.

- A Egia
- B Gezurra



10. Konbekzio bultzatua h balioak altuagoak dira konbekzio naturalarekin konparatuta.

- A Egia
- B Gezurra

11. Zein zenbakik erlazionatzen ditu kondukzio eta konbekzio bidezko bero transmisiorako mekanismoak?

- A Nusselt zenbakiak
- B Reynolds zenbakiak
- C Prandtl zenbakiak

12. Ondoko baieztapenetatik esan zeintzuk diren egia:

- A Konbekzio naturalean jariakinaren mugimendua bere dentsitate desberdintasunagatik gertatzen da.
- B Konbekzio bultzatua haizagailuak edo ponpak erabiltzen dira jariakinaren mugimendurako.
- C Rayleigh eta Grasshof zenbakiak konbekzio bultzaturako korrelazio enpirikoetan erabiltzen dira.

13. Geruza anitzeko horma bat egoera egonkorrean badago, geruza bakoitzean zeharreko bero fluxua geruzaren konduktibitatearen menpekoa da.

- A Egia
- B Gezurra

14. Egoera egonkorrean, bero transmisioa zero da.

- A Egia
- B Gezurra

15. Geruza anitzeko horma batean, temperatura profila irudikatzean malda geruza bakoitzaren konduktibitatearen menpekoa izango da.

- A Egia
- B Gezurra

16. Konbekzio koefizientearen unitateak  $W/m \text{ } ^\circ C$  dira.

- A Egia
- B Gezurra

17. Temperatura gradienteak positiboak dira.

- A Egia
- B Gezurra



18. Bero transmisiorako erresistentzia konduktibitatearekiko proportzionala da.

- A Egia
- B Gezurra

19. Metalek ez-metalek baino konduktibitatea altuagoa dute.

- A Egia
- B Gezurra

20. Airearen konduktibitatea baxua da.

- A Egia
- B Gezurra